

Antzinateko euskararen nondik norakoak

Joakin Gorrotxategi

EHU

Euskaltzaindiak Nazioarteko XV. Biltzarrean hizkuntzaren historiari atal berezi bat eskaini nahi izan dio, azken urteotan alor honetan egin diren proposamenak eta eman diren aurrerapausuak herrikideen aurrean plazaratuak izan daitezzen.

Niri euskararen historian denboraren aldetik luzea baina datuen aldetik murritza den garaia aztertzea dagokit gaurko honetan, Erdi Arokoa baino lehenagokoa, antzinatean aurkitzen ditugun leku izen, pertsona izen eta zeharkako lekukoak aztertuz orduko euskararen nondik norakoak argitzea, alegia.

Baina ezin dugu xede hau inolaz ere bete ez badugu lehenago antzinako dokumentazioa euskal lekukotzat jotzen, ez bagaude seguru zein izen den euskal izen eta zein arrotz, zein soinu euskararena eta zein inguruko beste hizkuntza batena. Segurantza hau hizkuntzalaritza historikoak bakarrik konparaketaren bitartez eman diezaiguke, metodo konparatzaileak eskatzen dituen baldintza zorrotzak garai ezberdineko baina ustez hizkuntza bereko datuei aplikatuz. Hau da, akitanierazko *seni-* (*Senico* pertsona izenean agertzen zaiguna) euskarazko *sehi-*ren aitzin formatzat hartzen badugu, eta ez zelta hizkuntzetan ‘zahar’ esan nahi duenaren *seno-*ren kideztat (Mitxelenak 1954an bere proposamena egin baino lehen gehienek uste zuten bezala), forma bi horiek zehazki lotzen dituzten euskal bilakaera ezagun eta *ad hoc* modukoak ez direnak identifikatzeko gai garelako da: lehendabizi bokal arteko sudurkariaren desagertzea sudurtasuna alboko bokalei pasatuz eta aspirazioa aztarna bezala utsiz, gero euskalkien arabera sudurtasuna bokalen ezaugarri izatetik segmento autonomo izatera pasatuz (*sei* > *sein*).

Soilik urrats hauek eman ondoren pentsa dezakegu akitanierazko *Seni-* eta honen eratorriek ‘sehi’ esan nahi dutela edo ‘sehi’ esan nahi duen hitz baten gainean eratutako izenak direla. Eze, beti kontuan izan behar duguna zera da, antzinateko lekukotasuna ez dela gerokoa bezalakoa, zeharo alderantzizkoa baizik: antzinateko izenek, izen hutsak diren heinean, ez dute berez esanahirik eta ezin dira, beraz, neurri jakin eta formal huts batean ez bada konparaketa lanetan erabili. Akitanierazko izenen eta geroko euskal hitzen arteko konparaketa batere arazorik gabe onartzen bada, ordea, (akitaniaerazko eta iberierazko izenen artean ez bezala) ekuazioaren esanahia euskarak ziurtatzen duelako da.

Hemendik ateratzen den ondorioa garbia da, eta halako lanetan zuhur jokatu nahi badugu ahaztu ezinekkoa: antzin aroko lekukotasuna euskararen etorkia eta his-

toriaurrea argitzeko oso garrantzitsua izanik ere, geroko euskararen menpe dagoela erabat, honek ematen baititu soil soilik antzinako lekuko bakanak azaltzeko eredu eta bidea; antzinako formek, fosilak izango balira bezala, berez ez dute zentzurik, ez bazaie historia luzeago baten barruan bere tokia bilatzen; gerta daiteke antzinakoa euskalkien gainean berreraikitako forma baten berdina izatea, baina gerta daiteke baita ere bakoitzak garai ezberdin bateko egoera erakustea: hitz elkartuetan lehenengo zatiak jasatzen dituen aldaketei dagokienez euskarak akitanierak baino egoera berriagoa erakusten du, *giza-*, *sema-*, *sen-* adibidieetan ikusi daitekeenez akitanierazko CISON-, SEMBE- eta SENI-ren aldean; bestalde akitanierazko ANDERE hiru silabadun hitzak aitzin euskararen erro monosilabikoaren egoera garatu du. Beraz azalpenak orokorra beharko luke izan, eta ahal den neurrian bi muturretako datuak bide batez azaldu: antzinako formek euskararen historiaz dakigunarekin ados etorri behar dute, historia honen mugari sendoak bihurtzen diren eran.

Esan dut antzinako lekukoak argitzerako orduan konparaketa (eta barne konparaketaz ari nintzen batik bat) beharrezkoa zaigula. Kontua da gehienetan konparaketa kanpora begira egin dela, inguruko zein urrutiko hizkuntza edo izenekin hemengo lekukoak erkatuz. Ez da zaila jokabide honen arrazoia ulertzea, konturatzen bagara konparazioaren bidez argitu egin direla hainbat eta hainbat hizkuntza familiaren aurrehistoria eta lurralde askotako garai ilunak.

Iberiera eta euskararen arteko erkaketak aspalditik datoz. Nahiz eta azken urteotan berriro ere euskoiberismoaren segitzaileren batek sutsu eta gartsu bien arteko lotura estua inon ere onartuko ez litzatekeen eran defenditu, berezilari guztiek ikusten dute euskarak, edo hobeto esanda, euskararen gainean daukagun ezaguerak ez duela batere laguntzen iberierazko testuak ulertzeko. Eta nire ustez iberieraren alorrean aurrerapenak oso urriak izango dira testu elebidunen bat agertzen ez den bitartean, nahiz iberiera-latina zein iberiera-greziera izan.

Hizkuntza bien arteko ahaidetasuna onartzen ez dutenen artean egon da, hala ere, izen propioak konparatzeko joera. Nik neuk ere (1993) egin dut, Tovarren, Mitxelenaren eta Untermann-en ildotik, holako lanik. Baina gorago esan dudana bezala, seguru al gaude, esaterako, iberieraz nahiko hedatua den *-adin* izen osagaiak akitanierazko *Dannadinnis* izeneko bigarren zatiarekin eta, batez ere, euskarazko *adin* hitzarekin zer ikusia duenik? Baliteke izen propioen kasuan elkarren ondoan hitz egiten ziren hizkuntzetan erabil zitezkeen osagai jakin eta konkretuz osaturiko sare orokor moduko bat egotea, baina ez da ahaztu behar izen osagai horien esanahia ez eza-gutzeak uzten gaituela batez ere kontu honetan besteetan baino eskuzabalagoak izaten.

Ez naiz konparaketa klasikoaren barruan egin diren lanen berri ematen hasiko. Duela guti Trask-ek (1995) kritikatu egin zituen lan guzti horien metodozko puntu ahulak, hala nola, zatiketa morfologiko arbitrarioak egitea, erkatzen diren hitzen esanahia zuzena ez izatea, askotan sekula ere esan ez diren hitzak erabiltzea, hitz berriak, maileguak edo oso hedapen gutikoak zahar eta jatortzat hartzea, hitz batean esanda, erkatzen diren hizkuntzen eta haien historien ezaguera eza.

Hizkuntzalari trebeen eskuetan aipatutako puntu ahulak ez dira horren ugariak, baina eskala txikiago batean bada ere mota guztietakoak agertzen dira.

Beste bi modu ezberdinetan erabilia izan da euskara konparaketagintzan: bate-tik antzinako hidronimia europarra azaltzeko orduan eta bestetik makrokonparaketa edo hizkuntza anitzen arteko konparaketa lanetan.

Vennemann-ek antzinako hidronimia europarrari buruz plazaratu zuen hipotesia interes handiarekin irakurri genuen, H. Krahe-k gaia sortu eta lehenengo aldiz tratatu zuenetik jatorriz indoeuroparra konsideratzen zen hidronimia orain Vennemann euskararen bitartez azaltzen saiatzen zelako, batez ere. Vennemann-en hipotesia (1994) sinplea da. Krahe indoeuropeista izanik indoeuropartzat jo zituen berak Europako ipar eta mendebalean baturiko ibai izen asko, baina ibai izen horiek gehien erakusten duten bokala —eta hitz hasieran batez ere— /a/ denez gero (indoeuropea zaharrear oso urria zena) eta zatiketa morfologikoaren bitartez erroa gehi -CV- itxurako atzizkiak atera beharrean -VC- atzizki prebokalikoak atera daitekeenez gero, batez ere izenaren azken -a determinatzailetzat jotzen bada, Vennemann-ek uste du antzinako hidronimia hizkuntza aglutinante eta soilik atzizkiz baliatzen denaren gainean eraikita dagoela.

Hau da, *Medamana* bezalako ibai izen batean ez ditu *-ma- eta *-na- atzizkiak, indoeuropeerazko *-mo- eta *-no- ren ondorengoak izan daitezkeenak, ateratzen, bai-zik eta *med-am-an-a.

Baina atzizkiak postbokalikotzat hartzea ez da europar hidronimia indoeuropartzat hartzearen arrazoi sendoena, indoeuropeistek badakitelako atzizki prebokalikoak, edo euren modura deiturik 'atematikoak', oso normalak zirela aitzin indoeuropearren fase zaharretan: lat. *hiems* ('negu') hitzak *gh(e)i erroa + -em- atzizkia + -s desinentzia erakusten du, berdin grezierazko *tékt-on-* ('arotz') hitzak edo sanskr. *mah-as-* ('handitasun') hitzak. Indoeuropeerazko jatorriaren aldeko arrazoi indartsuena hidronimia horretan aurkitzen diren zenbait ibai izenen etimologian datza: esaterako *Salia* ibaiak, gero *Sella* edo *Saja* emango duenak, indoeuropeerazko erro argi bat (*sal 'gatza') darama, edo Ingalaterrako *Tamesis* (*tam-essa formatik datorrena) eta Galiziako *Tambre* (antzinako *Tamara*-tik datorrena) 'urtu, isuri' esanahi duen indoeuropeerazko *ta- /tð- erroetik eratorriak izan dira. Eta etimologia hauen alboan Vennemann-ek ez zituen euskal etimologia alternatiborik asmatu, bere hipotesi formal hutsaren lagungarri izan zitekeena. Hori egin beharrean, tipologiazko eta egiturazko arrazoiak aipatu zituen, hala nola euskararen aglutinazioa, hizkuntza atzizkilaria izatea, -a- bokalaren ugaritasuna, batez ere hitz hasieran, eta azaleko beste ezaugarri batzu. Morfemen artean egiten duen erkaketa bakarra, eta horrexegatik oso adierazkorra iduritzen zaiona, ibai izen gehienek erakusten duten amaierazko -a eta euskal artikulua artekoa da.

Argumento horiek formalak izanik ere nahiko ahulak dira, J. Lakarrak *in extenso* erakutsi duen bezala (1996): euskaraz /a/ bokalaren ugaritasuna ez da Vennemann-ek aldarrikatzen duen adinakoa, batez ere /e/ bokalari ateratzen dion aldea ikusten denean, eta ez ditu aitzin euskararen fonema sistema eta formen distribuzioa batere kontuan hartzen, aitzin euskarak /p/, /m/, /w/, labiobelareak e.a. edo sC-, sCR- itxurako hasierak inoiz euki izan balitu bezala. Azkenik, euskal artikuluari ematen dion horrenbesteko antzinatasuna ez du azaltzen, euskalari guztien iritzitan euskal artikulua (ez -a(k) soilik, baita -au eta -ok ere) euskal deklinabide mugatua sortzarekin batera lehenagoko erakusleetatik datozela ederki jakin arren.

Bere hipotesia indartu nahian, Europako zenbait leku izen eta European hitz egin diren indoeuropar hizkuntzetako (hau da, germaniera, zelta, latina eta greziera) zenbait hitz euskaren bitartez azaltzen saiatu da onderengo urteetan argitutako lanetan. Horretarako ezinbestekoak zituen aitzin euskararen eredu bat izatea eta eredu horretatik gaur eguneko euskarara eman diren aldaketen berri ematea. Ikusirik alde batetik indoeuropearen morfema egitura fonotaktikoa euskararena baino askoz konplexuagoa dela (kontsonante multzoa hitz hasieran, kontsonantez amaitzen den silaba koda, euskarak ezagutu ez dituen kontsonanteak hala nola labiobelareak, era askotako larinalgalak, /p/, /m/, e.a.) eta bestetik sistema sinpleago batetik konplexuago batera pasatzea azalbidetaz askoz ere zehatzagoak eskatzen dituela, ez du beste erremediorik indoeuropeazturiko aitzin euskara proposatzea baino, hau da, indoeuropeak normalizatzen dituen fonemak eta distribuzioak aitzineuskararentzat (bere *Vasconic*) ere proposatu.

Latinezko *grandis* euskarazko *handi*-rekin erkatu nahi bada, **grandi* aitzinforma batetik abiatu behar du hitz bakoitza azaltzerakoan, proposatuz gainera euskarak bere aurrehistorian hasierako kontsonante multzo guztiak sinplifikatu egin dituela. Hau da, *handi*-ren aitzin forma **gr-* batez hasten da, eta ez **pr-*, **br-*, **dr-*, *tr-*, *kr-*, *sr-*, *str-*, edo beste multzo batez, aldamenen lat. *grandis* dugulako da, hain zuzen ere. Ernout-Meilleten hiztegian irakurtzen dugu lat. *grandis* hitzaren etimologia iluna dela, eta behar bada malgutasun apur batekin epaitu behar genituzke hitz ilunak argitzeko egiten diren saioak, horren zoroak izan arren. Baina Vennemannek aspalditik indoeuropearen bitartez ondo baino hobeto azalduta dauden germaniar edo greziar hitzak ere azaldu nahi izan ditu euskararen medioz. Venemannen iritiz gr. *Kyklo:ps* 'Ziklope' ez da beti pentsatu izan dugun 'one with a circular eye' (kúklo- + -op-s), baizik eta 'son of the mountain', gure basajaunaren pareko, izenak aditzera ematen duen bezala (*kukula* + *aba*). Euskarazko zorioneko *-aba* hori grezierazko *ánthro:pos* hitzean ere agertzen zaigu, azken buruan 'woman's descendent' besterik ez baitu esan nahi: < **andere* + *aba*. Euskarazko *andere* ez da Venemann-en iritiz askok pentsatu izan duten indoeuropeazko mailegu zahar bat, baizik eta euskarak aspalditik bere lexikoan zuen hitza, gero Europako zenbait hizkuntzek, zeinek bere modura, mailegatu duena: esaterako, Hektorren emaztearen izenak (*Andromáche*:) ez du grezierazko *ane:r/andrós* 'gizasemea' eta *mache*: 'borroka, gudua' izen normalekin zer ikusirik, eusk. *andere*-rekin baizik.

Ikusi dugu gorago zein aprioristikoa den Vennemannek Kraheren analisi morfologikoari egiten dion kritika, hitzaren azken bokalaren interpretazioan kokatzen baita gehienbat. Baina bere hipotesiaren defentsan erabiltzen dituen etimologiak askoz ere ahulagoak dira euskararen ikuspuntik begiratuta: Vennemann-ek asmatu duen aitzin euskarak ez du zer ikusirik euskalari gehienek onartu dutenarekin eta haatik pentsatzen dugu konparazio lan honek ere huts egin duela euskara kanpoko materialarekin erkatzeko orduan.

Bigarren motako kanpo konparaketa hizkuntz askotako oinarritzko hitz zerrendak erkatuz egiten da: makrokonparaketa deitzen zaio. Segitzailek aitortzen duten bezala, erkaketa mota honen helburua ez da metodo konparatzaile klasikoak aplikatuz familia bakoitzaren aitzinhizkuntza eraiki eta horri esker hizkuntza bakoitzaren aurre-historia argitzea; nahikoa dute hizkuntzak sailkatzea eta normalean onartzen diren familiak edo hizkuntza bakarrak multzo zabalagotan sartzea. Euskara ere erabili

berria izan da halako zereginetan, Na-Dene makrofamiliaren partaide gisa hartu izan dutenean.

Kritika zorrotzak jaso ditu alde guztietatik konparazio mota honek, eta gure artean J. Lakarra (1999) izan da metodoaren akatsak hobekien kritikatu duena. Ez da soinu egokitasunik proposatzen, eta gramatika, sintaxia eta gainontzeko atalak ez dira aztertzen. Normalean, esan dudan legez, hitz zerrendak erabiltzen dituzte eta batere zehaztasunik gabe, azal azaleko antzari pisu guztia emanez, osatzen dituzte hizkuntza makrofamiliak.

Kanpo konparaketaren alorrean emaitzak eskasak izan badira —eta zenbait kasutan lehengo egoeraren aldean atzerapauso nabaria ekarri badute—, ezin da gauza berdina esan barne konparaketaren bitartez aitzin euskararen zenbait puntuz lortu dugun ezagueraz.

Euskal hizkuntzalaritzan aspaldian ikutu gabe zegoen arazo bati heldu dio J. Lakarrak azken urteotan, hemen ere hizkuntza barneko datuak soilik erabiliz: aitzin euskal erroaren egiturarena, hain zuzen. Esan behar da auzi hau beti izan dela hizkuntzalaritza historikoaren alorretarik tradizioaletakoena, hizkuntzalaritza indieuro-parrean bertan, eta zer esanik ez semitikoan, ikus daitekeenez.

C.C. Uhlenbeck hizkuntzalari holandarrari zor diogu lehendabiziko euskal erroaren sailkapen sistematikoa (1947). Aditzaren erroa alboan utzirik, euskal izenek erakusten zituztenak batu zituen, egitura ezberdin baikoitza jatorizat edo arrotzat hartu ondoren euskal lexikoaren estrato ezberdinak sailkatzeko gai izango zelakoan. Deskribapenaren arabera euskal erroak monosilaboak, bi silabakoak eta trisilaboak izan daitezke, atal bakoitzaren barruan azpisaillkapenak ere egiten dituelarik. Adibidez, monosilaboen artean bokalez, diptongoz, kontsonantez edo afrikatuz amaitzen direnak aurkitzen dira, eta bisilaboen artean (C)VCV egitura (*aho, behi, beso*), (C)VCCV (*albo, argi, garbi, zaldi*) eta (C)VCCVC (*argal, bazter*) egitura dutenak gehienbat.

Mitxelenak aurrerapausu handi bat eman zuen aniztasun hori guztia silabaren eskema sinpleago batera bihurtzeko gai izan zenean, pentsatzen baitzuen aitzin euskararen erro kanonikoa bisilaboa zela eta silabaren egitura aberatsena (CVRST) itxurakoa.

Lakarra, jatorrizko euskal hitzen egitura aztertu ondoren, TVTV egituraren faltaz jabetu zen, hau da *bide* moduko hitz zaharrak oso urriak zirela eta ez zegoela bate-re arrazoirik *daba, *degi, *bego eta antzeko hitzen falta horrentzat, ez baldin bazitzaion behintzat aurreko fase bateko erroari baldintza zehatz batzuk ezartzen. Kontuan harturik monosilaboetan ere ezin zirela hitzak kontsonante leherkariz amaitu, zilegizko kontsonante bakarrak sonanteak zirelarik, pentsatu izan zuen aitzin euskal erro kanonikoaren egiturak bi baldintza hauek bete behar zituela: a) monosilaboa izan eta b) CV(W)(R)(S) itxurako distribuzioa eduki.

Hizkuntzalaritzaren historiaren aldetik garbi dago aurrerapausu nabaria izan dela, fenomeno berdina gertatu zelako historia askoz ere ezagunagoa eta landuagoa izan duen indoeuroperaren kasuan ere. XIX. mendeko gramatikak irakurtzen baditugu (berdin da Brugmann-ena zein Whitney sanskritistarena), eredu askotariko erroen aurrean aurkituko gara: bokal bakarreko monosilaboak (sanskritozko *i* ‘joan, *r* ‘joan’

bezala), bokalez amaitzen direnak (sagr. *da*: ‘eman’), bi (sansk. *kar* ‘egin’) hiru (sansk. *bhrjj* ‘erre’) edo lau (sansk. *skand* ‘jauzi’) kontsonante silaba bakarrean dutenak eta azkenik bisilaboak zirenak ere (sansk. *jani* ‘jaino’); erroaren bokala kontuan hartzen bada, hor ere batzuk luzea edo diptongoa erakusten zuten beste batzuk laburra zeukatzen bitartean. Baina Saussureren berreraiketak aniztasun hori dexente murriztu zuen bisilaboak (sanskritozko gramatikan *set* errokoak deritzanak) eta bokal luzez amaitzen zirenak aitzin erro orokorrako baten bilakaera bereziak zirela azaldu zuenean. Indoeuroperazko erroaren teoria Benvenistek osatu zuen hizkuntzetako egitura guztiak aitzin forma kanoniko batera bihurtu zituenean, Saussurek proposatutako laringalak jokoan jarritz. Erroaren teoriak konparaketaren mugak zabaldu zituen, erlazio gabeko hitzetan lotura berriak aurkituz eta berreraiketa antzinagorantz eramanez.

Kasu berbera gertatu da euskal erroaren teoria berri honekin ere. Euskal hitz gehien ezaugarri formalak eta soinuen distribuzioa deskribatuaz gain, etimologia berri batzuren oinarria eman du. Garbi dago monosilaboek ez dutela teoria honetan aparteko arazorik sortzen, baina bisilaboen sorketa nolobait azaldu behar da: aurkitu daiteke, dena dela, prozedura batzuren arrastoa:

a) hitz elkartuak: *urdin*, *gordin* (*ur*, *gorr* gehi *-din* aditzforma, Mitxelenak ikusi zuen bezala), *gibel* (**gi-*, ik. *gizen*, + *bel*), *zintzur* (*zintz* + *urr*).

b) atzizkien bidez eratorriak: *gorri*, *zuri* (*gorr*, *zur* + *izenondoetan* eta beste zenbait hitzetan agertzen den *-i*), *barru* (**barr*, ik. *barren*, + *-u*), *beltz* (*bel* + (*e*)*tz*, ik. *akit*. BELEX, edo bizk. *ertz*: *zub. eretz*).

c) erroaren lehendabiziko silaba (osoaren edo partzialaren) bikoizketaren medioz eratutakoak: *zezen*, *odol* (**do-dol*), *gogorr*. Bigarren kasuan ikus daiteke dizimilazio batek azaltzen duela hitz hasierako *d*-ren falta, *eder*, *adar*, *adats* eta halakoetan ere gerta zitekeena.

Lakarra bera kanpo konparaketagintzan erro teoriaren bat edukitzearen abantailaz jabetu da, eze ezagunak eta usuko diren kritikaz gain (lehen aipatu ditugunak) erroarekiko adostasuna ere erabili daiteke edozein ahaidetasun teoria epaitzeko orduan. Adibidez, karvelikoa eta euskararen arteko ahaidetasuna egiantza gutikoa da ez bakarrik kognatutzat eman diren kideek, —ondo aipatuak izan diren neurrian, jakina—, soinu egokitasunik aurkezten ez dutelako, baita bi hizkuntzek duten erro eredua arras ezberdina delako ere.

Aspirazioa. Aipatu dudan erroaren teoria erabili berria izan da aspirazioak aitzin euskaran sortzen dituen arazoak argitzeko. Mitxelena konturatu zen aspirazioa antzinateko euskara orokorraren ezaugarritasun nabarmenenetarikoa zela, Akitaniako izkriazioetan erruz jasotakoa eta Erdi Aroan ere Euskal Herriko zati gehiengan mantendua. Horregatik harrigarri samarra eginten zait Traskek (1997) proposaturiko aitzin sistema fonologikoan aspirazioari lekurik ez egitea. Mitxelenak berak oso ongi aztertu zituen aspirazioaren distribuzioa, euskalkietan erakutsitako aldaerak eta nolabaiteko sistematasun eza edo aldakortasuna, eta saiatu zen aspirazioaren eta azentuaren arteko ezin ukatuzko loturak ahalik eta argien azaltzen. Haren ikerketaren ondoren badakigu jatorriz aspiraziorik ez zuten forma batzuk hasperendun bihurtu direna, latinezko *pace* zuberierazko *bákhe* edo *zub. gaihérdi*, esaterako. Bigarren adibidean oraindik ere aspirazioa eta azentua silaba berdinean doaz, baina ez lehenengo adibidean, eta halakoak

azaltze aldera, hain zuzen, proposatu zuen aitzin euskal azentua bigarren silaban joango zela: lat. *pace* > aitzin eusk. *bakhé. Mitxelenaren eta Martinet-en proposamenak Hualdek (1995) aztertu ditu era argi batean.

Artikuluaren daraman silaba inoiz ere hasperenduna ez izateak nahiko garbi erakusten du silaba hori atonua zela, antzinako erakuslea, hau bai azentodun eta hasperendun, bere autonomia galduz artikulua gisa hitzari atxikitu zitzaionean sortu zena. Badaude, beraz, etimologikoak ez diren aspirazioak alde batetik eta baita galerak ere, bestetik. Baina ez dut uste euskararen aspirazio guztiak “of non-etymological origin” (Trask 1997:159) direnik, ezta gutiagorik ere. Traskek uste du bisilaboetan *ai*, *ei*, *oi*, *ui*, *au*, *eu* diptongoez gain beste edozein bokal elkarren ondoan agertzen baziren (esaterako *bear edo *ao hitzen kasuan) aspirazioa sartzen zela modu automatiko batean bokal horien artean (> *behar*, *aho*). Baina gauzak hala izan balira, ez da ulertzen zergatik dauzkagun ondoko bikote hauek: *sehi* / *sei*, *zahi* / *sai*, *ahur* / *haur* edo ondoko beste adibide hauek: *nahi*, *gehi*, *behi*, *lohi*, *zohi*, *ehun*, *mihi*, e.a. Ia segurutzat jotzen dugu aipaturiko hitz batzutan aspirazioa aurreko *-n-* batetik datorrela, *sehi* eta *mihi*-ren kasuan esaterako; pentsa liteke, beraz, Trasken ikuspuntuari jarrituz *-n-* bokalartean zeharo desagertu ondoren aspirazioa sortu egin dela azentodun bigarren silaban. Baina *behi*-ren kasuan ezin zitekeen halakorik gerta, hitz horren eratorriek, hala nola *betzain*, *beteseği* eta *Betolaza* toponimoak, *-n-* gabeko aitzin forma bat eskatzen baitute. Berdin gertatzen da bizk. *lotin* ‘tierra húmeda’ eta *lokatzá lohi*-ren eratorriekin edo *zoperrri*, *zotal*, *zohi*-tik datozenekin. Eta nondik etorri daiteke orduan hasperen hori? Ikusirik leherkariak testuinguru horretan mantendu egin direla (*otana* < *ogi*, *errepide*, *erretpide* < *errege*, *artile* < *ardi*, *artizarra* < *argi*, e.a.) ez zaigu beste bideirik geratzen aspirazioari aitzin hizkuntzan lekua egitea baino. Bestalde, *bihi*-ren eratorria den *bikain* hitzak, batetik, eta *mihi*-rena den *mingain* hitzak, bestetik, ezin hobeto erakusten dute zegozkien aitzin formak pare minimoak zirela: **bihi* / **bini*.

Mitxelenaren teoriak aspirazioaren kokapenaren zenbait arazo azentodun bitartez azal dezakeen arren, “it has some difficulty with the world-initial aspiration found in a substantial number of cases” (Trask 1997:165). Aipaturiko erroaren teoriak argi egin dezake, ordea, arazo honetan, Ivan Igartuak idatzi berri duen bezala. Teoria honen arabera aspirazioa bakarrik erroaren hasieran zilegi denez, ez da harritzekoa gero ere hitz bisilaboetan HV(R)-HVR egitura egotea; bakarrik beranduago lotuko zaio aspirazioa bigarren silaba azentodunari, honen hasieran kontsonante hasperengarriren bat baldin badago, HV(N)-KhVR egiturako hitzak lortuz. Egitura biak akitanierazko izenetan aurki daitezke oraindino: *hahann-* eta *hontharr-* hain zuzen. Ematen du atzizki batzu berez azentodunak izan zitezkeela, nahiz eta hirugarren silaban joan, ondoko izen honek aditzera ematen duenez: BAISOTHAR-. Geroago kokatu beharko da, beraz, hasperena hitzaren lehenengo silaba bitariko bakar batera mugatzen duen desaspirazio legea. Honen guztiaren ondorio gisa ikus daiteke euskal hitz askok hasieran duten aspirazioak sustrai luzeak dituela, aitzin euskal erroari zor zaizkionak, eta bestetik, akitanieraren egoera bilakaera luze horren barruan koka daitezkeela.

Inork ezin du ukatu antzin aroko lekukoek euskararen historiaren ezaguerarako duten garrantzia. XIX. mendean A. Luchaire-ren lanekin hasi eta urte askotan zehar hizkuntzalari gehienak garbi izan dute euskararen aztarna zaharrenak Akitanian aurkitzen zirela erromatarren inperioaren lehendabiziko bi mendetan. Lekuko horiek,

hots, latinez idatziriko epigrafeetan agertzen diren pertsona eta jainko izenak, Mitxelenak 1954an eta nik neuk 1984an ikertu genituen, orduko argitalpenen gainean. Harrezkero ez da Akitanian bertan datu asko gehiagorik azaldu, ezta ezagutzen zirenak ere berriro editatu. Datu berrien faltan beharrezkoa zaigu epigrafe zaharren edizio gaurkotua, oso ugariak baitziren galdutako edo ondatutako harrien gainean egindako irakurketak. Halaz guztiz ere, Luchaire edo Sacazeren obra zaharkituak batere kritikarik gabe erabiltzen dira historiagile, arkeologo eta hizkuntzalarien artean, batez ere frantsesak badira edo frantsesez idazten.

Akitania bera antzu agertu baldin bazaigu azken urteotan lekuko berrien ikuspuntutik, fortunaren kolpe itzal bati esker akitaniar izen mordo bat ezagutzera eman da Alemaniako Espiritatik gertu Rin ibaiondoaren garbiteka lanetan aurkikuntza arkeologiko baten ondorioz. Zilarrezko bitxi batzurekin batera garbitzaileontziak 129 zilarrezko xafla finak atera zituen ibaiondotik, horietatik hogeitamar inguruk latinezko testuak idatzirik zituztelarik. Testu guztiak erromatarren Marte jainkoari eskainitako *ex votoak* dira eta alde horretatik Inperioan zehar hainbat tokitan agertutako izkri-zioen pareko. Baina xafla horiek aztertu zituzten arkeologoei lehenengo momentutik deigarri egin zitzaiena hango pertsona izenen eitea izan zen, eze berehala konturatu ziren Akitaniako izenen antz itzela zutela (Bernhard, H. 1990). Eta halaxe da. Izenak zerrendatu ondoren bertan aurkitzen ditugu akitaniar antroponimian oso ezagunak eta euskararen aldetik ongi azalduak dauden izenak, hala nola *Sembus*, *Bioxxus*, *Andossus*, *Sembedo*, *Belex*, *Bonxus*, e.a. Hauen ondoan badaude beste batzuk, galiar jatorrizkoak izan arren, Akitanian ere usuko zirenak, *Donnus* eta *Taurus*, besteak beste, eta azkenik etimologia garbirik ez dutenak, baina Akitaniako izen askorekin gertatzen den bezala, akitaniar jatorrizkoak izateko batere eragozpenik ez dutenak: *Salixus*, *Carerdo*, *Banbix*, *Berexe* e.a.

Izen hauek erakusten duten lehenengo ikasgaia zera da: Untermannek (1963) sorturiko “Namenlandschaft” nozioa nire ikerketa alorrari ere aplikatuz, Akitania eremu onomastiko berezitat jotzea ez zela apriorismo huts bat, bilduriko corpusetik berez mekanikoki zetorrena, errealitatearen isla baizik, inork ere aldeazurretik pentsa ez zezakeen urrutiko toki batean kasualidadez aurkitutako lekukoek baieztatzen duten bezala. Hau da, datu batzuren gainean eraikitako azalbide teoriko batek zeharkako bidetik etorri zaion baieztapen experimentalak izan du urte batzu geroago.

Xafla horietan agertzen diren izenak interesgarriak dira erabat akitaniar antroponimiaren zenbait ezaugarri berri erakusten dizkigutelako.

Aurkikuntza hauek baino lehen hutsaren hurrekotzat jo zitekeen hitz hasierako X- horren lekukotasuna. Orain, ordea, askoz ere zerrenda txikiago batean bi izen, batere ilunak ez direnak, gainera, X- batez hasten dira: *Xembus* eta *Xalinis*. Garbi dago lehendabiziko izena orokorragoa den *Sembus* izenaren aldaera dela, bigarrena latinezko *Salinis*-ena denaren moduan, hau ere lehenengo corpusean ezagutzen genuena. Horrek erakusten digu, alde batetik, X- hitz hasieran ez dela fonema autonomo baten adierazpidea, S-ren bitartez idazten den edo diren txistukari frikari(ar)en aldaera baizik, eta bestetik, ondorio gisa, lehenengo azalbidea funtsean indartu egiten dela, aldaera hori euskararen historian Erdi Aroko lekuko zaharrenetik hasita ezagutzen dugun asimilazio bustidura edo palatalizazioaren adibidetzat hartzen badugu. Euskarak, euskalkiz euskalki ezberdina den asimilazio bustidura edo palatalizazioaren ondoan, badu beste moduko bustidura bat, L. Oñederrak (1990) *buztidura adie-*

razgarria deitu zuena, eta hiztunak pertsona edo gauza batendako duen samurtasuna edo erakutsi nahi duenean erabiltzen dena. Erdi Aroan bertan *domna Gutia* (1061. urtean) buztidurarik gabeko izenaren ondoan *Munio Guchi* (1023. urtean) aurkiten dugu. Orpustan jaunak adibide gehiago batu ditu bere azken liburuan, *seme*-ren kasua barne: *cheme*, *chemeto*, *xeme*. (131 orr.)

Hau da, pentsa dezakegu buztidura adierazgarri fenomeno honen sustraiak oso urrutikoak direla, antzinatora ere heltzen direlarik gutienez.

Xafla horiek beste gauza interesgarri asko ere eskaini digute, banan banan orain tratatu ezin ditudanak, hala nola izen, atzizki eta aldaera berriak. Horien artean bakarrik *Doxxi* izenaren kasua aztertuko dut hemen. Izena monosilaboa da —amaierako bokala latinezko genitiboaren marka besterik ez da— eta /dots/ ahoskatzen zenaren idazkera sistematikoa da. Izenak, monosilaboa izanez gain, /d-/ horzkari ahostuna erakusten du hasieran, prinzipioz euskal hitz jatorrek ez dutena. Seguru nago G. Bähr-ek bere garaian izen honen berri eduki izan balu ez zukeela euskal izentzat hartuko, arrazoi honengatik hain zuzen: (Namen wie *Derro*, *Deri* sind dagegen wegen des Anlauts wohl kaum baskisch: *B.u.I.* 41). Baina lehen aipatu dugun erro teoriaren arabera ez dago eragozpenik aitzin euskal erroak hasieran *d-* izan zezan, zenbait bisilaboen bigarren silabak (arestiagoko erro bakarrek morfemak) erakusten duen legez. Gogora dezagun hemen De Rijken (1992) *da-* aitzin adizlagunari buruzko berreraiketaren ereduak.

Akitanieran bertan honen baieztapena izan dezakegula uste dut, izen hau cor-pusean guztiz ugaria den *Andoxsus* izenarekin lotzen badugu. Ugaria izateaz gain izen honen erabilera deigarri egiten zaigu hiru kasutan jaingo izenari epiteto gisa atxikitzen zaiola ikustea: *Herculi Ilunno Andose* Gers-eko epigrafe batean bezala.

Lehenagotik begiz jota neukan izen honetan ‘arra’, ‘ordots’ esangura zuen /dots/ edo /(h)ots/ formako erro bat onartu zitekeela. Alde batetik emakumezkoen *Andere* izenaren ordaina izango litzateke, eta bestetik euskarazko *bildots*, *orhots*, *ordots* eta antzeko animalia hitzetako erro berbera erakutsiko luke. Espira inguroko xaflek etimologia hori bi aldetatik baieztatu dutela uste dut: batetik *Doxxi* (gen.) formak berre-raikitako balizko *dots hura benetan gauzatu egin du eta bestetik akitanierazko *Herculi Ilunno Andose* egituraren eredu latinezko *Marti domino*-n aurki daiteke.

Pirinioetatik hegoaldera lekukoak nahiko ugari dira Lergako epigrafea 1960an argitaratu zenez geroztik. Akitanian euskal leinuko izenak garbiak eta ugariak ziren bitartean, Hego aldean eta batez ere Baskoien lurraldean ez ziren inondik ere agertzen, horrek sortzen zuen egonezina eta harridura nabariak zirelarik. Lergako izkritzioa agertu zenean, berehala ikusi zen hango izen bat, *Ummesahar*, euskaratik errez uler zitekeela eta beste biak, *Abisunhar* eta *Narhungen*, hain zuzen, Akitaniako izen multzoan sar zitezkeela bai osagaien aldetik bai fonetika arrazoiengatik ere. Mitxelena Lizarra inguruan agerturiko *Loxa* jainkosaren izena ere euskarazko *lotsa*-rekin lotu zuen eta halaxe lortu zen euskal izen multzo ñimiño bat Nafarroan ere identifikatzea (Mitxelena, 1991).

Harrezkero astiro baina geldiuenerik gabe agertu dira akitaniar kutsuko izenak baskoien lurraldean, batez ere Nafarroako erdigune, ekialde eta Aragoiko Cinco Villas inguruetan (Beltrán, 1986, 1993). Bateren batek euskal etimologia onargarria du, hala nola *Larrahe* jaingo izenak, euskarazko *larre*-rekin parekatzen badugu. Gehienek,

ostera, ezaugarri formalak besterik ez dituzte erakusten: hauetarik inportanteena aspirazioa da (*Dusanharis* Sofuentesen, *Serhuhoris* Valpalmasen eta *Jeihear* Botorritako latinezko brontzekoa), baina aipatzekoak dira baita azken morfemetako afrikatuak (*Selatse*) zein sudurkari geminatuak ere (*Itsacurrinne*) (Jimeno et al. 1998, Velaza, 1999). Jainko izenen gehienetan *-e* taxuko desinentzia aurkitzen dugu, baita Akiataniako izen askotan ere, hizkuntzaren beraren eta ez latinezko *-ae* datibo desinentziaren adierazpena izan behar lukeena.

Aipaturiko azken jainko izena deigarria da benetan: lehenengo kolpera *txakur* gogoratzen digu, baina hitz hasierako *its-* eta amaierako *-inn* horiek arazoak sortzen dituzte; lehengo txistukari afrikatua adierazteko bide bat izan daiteke?, bigarrena akitanierazko *-enn* atzizkiaren aldaera? (ik. *Belexennis* (gen.), *Leherenn* eta *Boriunno* jainko izenak). Hitz zatiketa beste modu batera egitea ere zilegi da: **Itsacur(e)rren-*, esaterako, Nafarroan bertan agertu den *Errensae* teonimoarekin bigarren osagaia parekatuz, edo euskarazko *itsats* dela lehendabiziko osagaiaren iturburua. Momentuz ez dut uste askoz gehiago aurreratu dezakegunez etimologiari dagokionean behintzat.

Izen hauek agertu diren eremuan iberiar jatorrizko izenak ere aurkitzen dira, *Geseladin*, *Turciradin*, *Gurtaanbas*, eta Ascoliko brontzean *segienses* herri izenaren azpian zerrendatzen direnak: *Sosinaden*, *Urgidar*, *Nalbeaden*, *Umargibas*, *Luspangibas*, e.a.

Betidanik pentsatu izan da Ascoliko brontzean agertzen diren izen guztiak iberiarrak direla, areago, iberiar onomastikaren egitura kanonikoa eskaintzen dutela. Baina kontuan izanik brontzeak jasotzen dituen izenak Pirinioetatik Ebro ibairainoko biztanleenak direla, ezin dugu saihestu batzuk akaso euskal leinukoak izan daitezkeenik: niretako *Enneges* ez da iberiera orokorreko izena, aipatu dudan eremu mugatuan agertzen zaiguna baizik eta Erdi Arotik Euskal Herrian oso zabaldua den *Enneco*-ren kidea.

Orain astiro tratatu ezin baldin badut ere, esan behar da antzinako hispaniar hizkuntzalaritzan izena duen J. de Hoz-ek iberierari buruzko gogoeta berri arras interesgarriak plazaratu dituela azken urteotan. Hitz gutitan esanda, J. de Hoz-ek ez du uste iberiera iberiar testuak agertzen diren leku guzti guztietan ama hizkuntza zenik. Alderantziz, zeharkako lekukotasunengatik pentsatzen du iberiera trukerako hizkuntza bezala lehenago eta hizkuntza idatzi jaso bezala geroxeago lurralde askotara zabaldu zela. Gure aldetik, baskoien eremuan izen propioek erakusten dutena, hau da euskal leinuko eta iberiar jatorriko izenen nahasketa, ikuspuntu horren sustentagarri izango litzateke.

Aurkikuntza berriak ez dira honenbestean bukatzen, eta oraingoan Ebro Ibaira begiratzen duten Soriako lurralde garaietara garamatzate. Espinosa eta Usero historiagileak (1988) Cidacos ibar goieneko latin epigrafeak aztertzerakoan konturatu ziren bai izenen aldetik, bai marrazki eta formaren aldetik epigrafe horiek multzo berezi bat osatzen zutela, Calagurris inguruko giroarekin Mesetakoarekin baino zer ikusi gehiago zuena. Epigrafia horren berezitasunaren arrazoia ez zen inguruko *officina* edo lantegi bateko ekarpenean bilatu behar, bertako biztanleen gizarte batasunean baizik, “en la homogeneidad social y cultural de las (gentes) que las tallaron” (Espinosa, 1989).

Espinosa eta Userok bere lanean bildutako materiala ikusi ondoren berehala konturatu nintzen bi gauzataz: bata, hango pertsona izen gehienak ez zirela zeltiberiak edo zelta leinukoak, nahiz eta epigrafeak teoriarik Zeltiberian edo gutienez lurralde indoeuroparrean agertuak izan, eta bigarren, ezin zitezkeela nahitanahiez iberikotzat jo: antzinatean handik ez urruti topatzen genuen hizkuntzaren bitartez, euskara zaharren bitartez alegia, azal zitezkeela.

Hona hemen orduko datuak 1992an Escorialeko ikastaroetan emandako iruzkinarekin batera (Gorrotxategi, J. 1993):

Junto a los *nomina* latinos acordes con los atestiguados en las ciudades romanas de los alrededores, hallamos un nombre indoeuropeo frecuente en el Ebro y la Meseta, *Maternus*, y otro *Caericioco[n]*, presumiblemente un genitivo de plural de una agrupación familiar celtibérica. Pero lo llamativo es la existencia de otros no indoeuropeos:

AR[...].]THAR, LESURIDANTARIS (gen.), OANDISSEN[...], ARANCISIS (gen.), SERGIA (nom. fem.), AGIRSENI (gen.).

cuya asignación a la lengua ibérica tampoco es incontestable. En primer lugar el antroponimo amputado *Ar[...].thar* presenta una aspiración vascona, el segundo...no tiene paralelos en ningún lado, excepto en el suf. *-tar*, tampoco los tiene *Oandissen[ni Arancisis*

Antroponimia honen ezaugarritasun nabariena analisirako iluntasunean eta parekotasunez datza. Identifikatu daitekeen *-tar* osagaiak bai akitanierazko onomastikan eta bai iberierazkoan ere sartzeko eskubideak ditu. *Agirseni* izena bere aldeetik Ascoliko brontzean agertzen diren *Agirnes* eta *Agerdo* izenekin lotu behar da, dudarik gabe, baina ia ez da hain segurua izen horiek nahitanahiez iberiar leinukoak direnik. Zerrenda horretan agertzen zen ezaugarri ñimiñoa nahi bada baina zeharo esanguratsua *-thar* atzizkian adierazten den aspirazioarena da, horrek baskoien hizkuntza girora eramaten gaituelako dudarik gabe. Hori zen dena.

Zorionez duela oso guti egin diren aurkikuntza berri eta ikerketei esker, izen mota honetako multzoa modu argigarri batean ugaritu zaigu. Gómez Pantoja eta Alfaro Peña historiagileek (2001) lurralde horietako epigrafe berri batzu argitaratu dituzte. Guri interesatzen zaizkigun izenak soilik aipatuz —espero zitekeenez erro-matarrak eta zenbait zeltar badaude eta—, hona hemen lekuko berriak:

1. Antestius | **Sesenco** | Paterni f. | an(norum) XX h.s.e.

(La Laguna, Villar del Río, Soria)

2. Sempr(onia) | **Attasis** f. | ic. s. est | an(norum) XXV | C. Se[m.]

mat(ri)

(Valdecantos, Santa Cruz de Yanguas, Soria)

3. Antestia | **Onse** Mur|rani filia | annorum | XXV | Hic s. e.

4. Aeonso --> Ae(milius) **Onso** (irakurketa onargarriagoa)

5. Ponti[a C]ons<i>li[a Na]sonis --> Pontia **Onse**

Lehenengo izena, hots *Sesenco*, Antistius-en *cognomen* gisa hartu behar dena, edozein euskaldunentzat Lergako *Ummesahar* hura bezain ulergarria da. Bai akitanieraz onomastikan eta baita Erdi Arokoan ere oso normala den *-co* atzizkia aurkitzen dugu hemen *zezen* animalia izenari loturik diminutiboa eratzeko asmoz.

Horren garbiak ez izanik ere, emakumezkoen *Onse* eta gizonezkoaren *Onso* guztiz interesgarriak dira sexoa atzizki berberaren bi aldaeren bitartez adierazi egiten

dutelako: akitanieraz *-so* (eta antzekoa edo berdina den *-x(so)* sexu biren izenen eraketan erabili arren —*Sembexson-* eta *Anderexso-*k erakusten duten bezala— askoz ere ugariagoa da gizonezkoenetan; *-se* atzizkia, ordea, soilik emakumezkoenetan agertzen da. Beraz, akitanieraren onomastikan ikusten dugun banaketa berbera aurkitzen dugu Soriako izen bikote honetan. Erroari dagokionez, akitanierazko *Bonxsoni* izen konparagarriaren azpian dugun *Bon-* erroarekin *Hon-* erroarekin baino lehenago lotuko nuke. Honek, jakina, aldaera dialektalak eskatzeaz gain aldaketa fonetiko jakin bat eskatuko luke: hasierako ezpainkari ahostunaren desagertzea /o/ bokal biribilaren aurrean (*#bo- > o-). Mitxelena konturatu zen euskarazko hitz jatorretan, *bost* eta ezer guti gehiagoren salbuespenak salbu, ia ia ezezaguna zela fonema hori /o/ baten aurrean. Pentsa dezakegu, beraz, aldaketa hau zenbait tokitan emana zegoela jadanik antzinatean.

Nolanahi ere den izen bakoitzaren azalpen etimologikoa, garbi dago multzoaren ezaugarritasun nabarrienak euskara zaharraren eta akitanieraren eskutik azaltzen direla. Baina Alemaniako zilarrezko xaflen aldean, Soriako lekuko hauek ondorio historiko sakonagoak eduki ditzakete. Historiagileek ez dakite zergatik agertu diren Alemanian, bere sorterritik hain urrun, akitanier xafla eta izen horiek, Akitaniako jendeak eramanak izan ziren edo germiniarrek hemen ostuta (noiz?) harantzako bidean galdu edo nahita uretako jainkoei eskaini zieten¹, baina inork ez du uste han bertan egiten zen hizkuntzaren frogatzat har daitezkeenik. Soriako lekukoak, ostera, beste mota batekoak dira erabat: Espinosa eta Userok esaten zuten bezala, bertako gizartearen ekarpen bat. Segurutzat eman dezakegun arren gizarte horren zati batek behintzat euskara zaharra ezagutzen zuela, ez da hain erraza euskaldun horien presentziaren arrazoia jakitea. Izan daiteke euskara lurralde horretan zelberieraren indartzea baino lehenagoko hizkuntza propioa izatea, Errioxarako Merino Urrutiak aspaldi defenditu zuen bezala, edo abelzaintzara emana zegoen gizarteak Calagurris bestaldeko jende euskaldunarekin mantentzen zituen harreman estuen isla izatea. Bigarren hipotesi ahul honetan ere behar beharrezkoa da onartzea euskara Ebro Ibaian egiten ziren hizkuntzetariko bat zela.

Euskadiko lurraldeei dagokienean lekukoek lehenago berean segitzen dute, Araban salbuespen tipi bat eginik. Euskal kutsua zuten izenak oso urriak ziren, Iruñako izkizio batean agertzen zen *Illuna* izena —orain galduta dagoena, gainera— eta Miñaoko *Helasse* jainkoaren izena besterik ez. Orain zerrenda honi Agurain ondoran agertu diren beste bi izen gehi diezaizkiogu: *Luntbel...*(?) eta *Lutbelscottio*, nahiz eta euren azalpen etimologikoa zaila izan (Gorrochategui, J, 1995, *Veleia* 12). Bizkaian eta Gipuzkoan ez da aurkikuntza epigrafiko berririk izan, baina interesgarria da esatea Foruako izkizioan irakurtzen zen *Iviliae* jainkosa izena, nik neuk ere erromatarren aurreko izena kontsideratzen nuena, orain J. Velazaren bista fina eta jakiturari esker *Tutelae* irakurri behar dela. Honekin batera oso arraroa egiten zitzaigun euskal kutsurik gabeko izena ezabatu behar dugu lekukoaren artetik.

Zuzenezko lekukotasunezak berez ez luke arazo handirik sortuko, zeharkakoek, batez ere iturburu klasikoetan aipatzen diren toponimoek ez balute beste batera bideratuko; *Deva* edo *Nerva* ibaien izenak, esaterako, oso garbiak dira zeltaren aldetik. Tolomeoren zerrendaren arabera, Barduloen herrien artean *Segontia* eta *Trition* zelta

¹ Xafla hauen gainean argibide gehiago nahi duenak ikus dezake *Revue Aquitania* 19 (2003), 25-47 aldizkarian argitaratu dudan lana.

jatorrizko izen garbiak dira eta gainontzeko gehienek zeltazko atzizkiak edo eratoritze moldeak dituzte. *Oiasso* izango litzateke Tolomeok aipaturiko leku izen euskaldun bakarra, geroko *Oihartzun*-ekin parekatzen bada.

Datu guzti hauen aurrean pentsa daiteke hiru euskal probintzien gehiengo antzinatean ez zela euskalduna eta geroago bihurtu dela euskaldun. Ikerlari ezagun batzu horixe bera uste izan dute, euskalduntzearen abiapuntua Nafarroako Baskoien lurraldean edo Iparraldeko Akitanian jarritz. Jakin badakigu orain, zuzeneko lekukoei esker, lurralde bi horietan euskara egiten zela baina zeharkako lekukotasunak edukiko bagenitu bakarrik, kostaldeko probintzietarako daukagun bezalaxe, ez litzaziguke hain erraza suertatuko lurralde horien erabateko euskalduntasuna frogatzea.

Ikus ditzagun Tolomeok baskoien eremuan aipatutako hiriak:

Iturissa (Poza lizenziadunaren garaitik euskarazko *iturri*za ulertu da hemen; dudarik gabe zerrendako euskal izen garbiena, ez bada *Iturista* irakurri behar behintzat), *Pompeion* (eusk. ala iber. *-elon?*), *Bituris* (gal. *Bituriges*, *Biturix*), *Andelos*, *Nemanturista*, *Curnonion*, *Iacca*, *Gracuris* (iber. *-gurri*), *Calagorina* (iber. *-gurri*), *Kasconton*, *Ercauica*, *Tarraga*, *Muscaria*, *Segia*, *Alauna*.

Zerrenda honetan ez ditugu zeltar izen nabariak aurkitzen, baina dudarik gabe *Bituris* Bordele inguruko *Bituriges* deritzan herriarekin lotu daiteke eta *Andelos*, hala nahita, *ande-* + *-lo-* zatitu daiteke eta *Uxello-* eta *Mediolo-* toponimoen antzera ulertu; honetaz gain *Segia Segobriga*-n eta antzeko toponimoetan agertzen den osagai zeltar nabariaren bidez uler daiteke eta izen askotan sakabanaturik indieuropar atzizkiak ere atzeman daitezke. Iberieraren aldetik ikusiko bagenu kontua, hor sartuko genituzke ziurki *-gurris*, *-elon*, *Tarr-* eta besteren bat. Ezin daiteke esan, beraz, baskoien toponimia zaharra euskal toponimia gardena denik, ezta hurrenik ere (Gorrochategui, J. 2000).

Akitania zaharreko toponimoek ere arazo berdintsuak dituzte:

Bigerri herri izena oraingo *Bigorre*-ren aurrekoa da dudarik gabe; gero *Bearn* /*Biarno* emango duen *Bearnum* izenak agian euskarazko *behe*-rekin lotu daitekeen osagarria du; *Tarbelli* herri izena galoaren aldetik (ik. galozko *tarbo-* ‘zezen’) zein euskararen aldetik azal daiteke (eusk. *-bel* ‘beltz’) eta *sic de caeteris*.

Toponimiaren arazo hau alderantziz aztertuko bagenu, hau da, Erdi Arotik hasita atzera eginez *-oz* atzizkiz amaitzen diren toponimo ugarien arrastoa Antzinatean bilatzea izango balitz gure xedea, oso zaila egingo litzaziguke antzekorik aurkitzea. Toponimo horien zabalguneari erreparatzen badiogu, berehala konturatuko gara, Rohlf eta Séguéy hizkuntzalariek esan zuten bezala, akitaniera edo antzin aroko euskararen eremua adierazten dutela, eta gure tradizio idatziaren hasierarako jadanik eredu ihartu ez produktiboa izateaz gain oinarri lexiko ilunei atxikituta zegoela kontuan harturik, *-aga*, *-eta*, *-za* eta antzeko atzizkiak baino askoz zaharragoa izan behar zuela pentsatu behar dugu nahitanahiez.

Hori guztia jakinda, bururatu zait niri antzinako *Itinerarium Antonini* delakoak Akize eta Bordele artean kokatzen dituen *Segosa* eta *Coequosa* leku izenak aipatu dugun atzizkiaz osaturik egon daitezkeela, baina, egia esan, konparazioa *Tolosa*, *Succosa*, *Dertosa* eta antzeko /o:/ luzedun-*osa* atzizkia duten hiriekin askoz ere errazago izango litzateke.

Kosta aldeko probintzietara bihurtuz, gorago esan dut antzinako iturriek eskaintzen diguten toponimiak gehiago bideratzen gaituela zeltar aztarnak euskal aztarnak baino aurkitzera. Beste aldetik, Baskoien eta Akitaniako leku izenak azterterakoan deigarri egin zaigu euskaldun ziren eremuetan euskal toponimoak horren urriak edo zalantzakakoak izatea. Leku izenen eta pertsona izenen arteko desadostasunaren arrazoa nolana hiko ere den, uste dut iturrietan somatzen den euskal toponimiaren eskasiak ezin duela besterik gabe lurralde hauen euskalduntasuna ukatu.

Kontu hauetan arkeologiak laguntza apur bat eman dezake, nahiz eta hizkuntz egoeraz ezin zuzenean ezertxo ere esan, identifikatzen dituen kultura estrato edo geruzen hurrenkeran jarraipena edo etenak ikusteko gai bada. Gure gairako oso garrantzitsua den Burdin Aroa duela urte guti hasi dira seriozki aztertzen eta uste dut denbora guti barru sintesi moduko bat eskaintzeko moduan egongo direla.

Hizkuntzalaritzaren aldetik, froga bila ari bagara, uste dut zeharkako zerbait ekarri dezakegula auzi honetara. Toponimoekin zer ikusia duen kontua da, latinetik edo ustezko zeltiberieratik mailegatutako leku izenek ematen duten zeharkako argibidea, hain zuzen ere. Jakin badakigu euskarak latinezko hitzak garai ezberdin batzuetan mailegatu dituela eta jatorrizko forma latindarra kontuan harturik erabakitzekeo gai gara mailegu goiztiarra edo berantiarra den. Euskal maileguetan egiten den soinu aldaketen hurrenkeraz ez da zoritxarrez irladeraz egiten denaren bezain zehatza eta aberatsa, baina aldaketa batzutan oinarriturik erraz bereizi daitezke hitz hasierako belarea mantendu dutenak (*gela* bezala), batetik, eta palatalizatu dutenak (*zeru* bezala), bestetik, edo eta latinezko /i/ laburra mantendu dutenak (*bike* < *pice* bezalaxe) edo erromantzeetan bezala /e/ bihurtu dutenak (*fede* < *fide*). Erromantzeen lekukotasuna aztertu ondoren Lausberg erromanistak palatalizazioa III. mendean burutua zegoela uste du eta bokalen arteko nahasketa aurreragokoa izan daiteke.

Honek esan nahi du Arabako *Guircu* toponimoa, latinezko *circu(m)* hitzetik baldin badator, III. menderako gutienez latinetik euskaratua zegoela. Berdina esan dezakegu *Anguelu* leku izenari buruz. Baina hitza mailegu zaharra dela onartzeak ez du berez toponimoaren antzinasuna frogatzen, zeren toponimoa euskarak bizirik zuen hitzaren gainean edozein momentutan sortu izan zitekeelako. Hau da, ezin da baieztatua besterik gabe Bizkaiko *Ibarrangelua* III. menderako eratu zenik, *angelu* hitz arrunt bezala ordurako mailebatua zela baizik. Horregatik euskararen altxor lexikoan onartu diren maileguak (*angelu*-ren kasua eta ziurki *zaldu*-rena ere bai, nahiz eta Erdi Arotik hona erabilia ez izan) ezin dira toponimoen antzinasuna frogatzeko erabili.

Horregatik hain zuzen ere, iruditzen zait Euskal Herriko latindar toponimiari buruzko ikerketa sakon bat behar beharrezkoa dugula erromanizazioaren indarra eta kronologia argiago ager daitezen.

Halako ikerketarik ez dugun bitartean, eskuetan geneukan aria galdu gabe, uste dut aurkitu daitekeela argudioren bat antzinako euskalduntasunaren alde.

Getaria leku izenak ematen digu aukera. Gauza ezaguna da bi Getaria daudela, Gipuzkoakoa eta Lapurdikoa, euskaraz beti berea duten *-a* erakusten dutenak (ik. *getariarra*; *Donostiarrak ekarri dute | Getariatik akerra*; 1193. urtean *cattarie*). Ematen du Aizkibelen hiztegian datorren sarrerak (*getaria* “atalaya en que se hacen las señas por humos”) Larramendiren sormenari zor diola bizitza (Lar. Fumante, keeztaria, getaria, kegillea) (ik. OEH, s. u. *getaria*). Gavelek uste zuen gaskoierazko

getari ‘begirale edo begiratzeko postua’ zela, besterik gabe, baina pentsa daiteke latinezko *caetaria*-tik ere etor daitekeela problemarik gabe. Etimologia honen alde hitz amaierako *-a* bokalaren tratamendua ez eze alemanez “Realprobe” deitzen dena ere aipa genezake: hiri bi horietan, hain zuzen ere, erromatar garaiko arrain industriak, *caetaria* deitzen zirenak, aurkitu dituzte. Etimologia onartzen badugu, hasierako leherkari belareak oso garbi adierazten digu mailegua latin arrunteko palatalizazioa baino lehenagokoa dela, eta kasu honetan nekez pentsatu daiteke latindar hitz hori toponimo ezagun eta konkretu hauetatik at euskal hitz arrunt bezala ere mailegatu zela.

Bostgarren mendetik aurrera, Inperioko leku askotan bezalaxe egundoko aldatetarik egon ziren politika, gizarte eta, ziur asko, hizkuntzaren aldetik ere. Hurrengo mende ilun horietan ereiten da IX.etik aurrera agertuko zaigun Erdi Aroko euskara. Aldaketa horien nondik norakoa gaur egun bakarrik arkeologiak eman diezaiguke eta badirudi azken urteotan aurkikuntza arras interesagarriak egon direla Hego Euskal Herriko zenbait lekutan, Basauri ondotik hasita Iruñearaino. Baina hori guztia euskal historiaren beste atal bateko atarikoak denez, nire gaurko xedetik urruntzen dena, esan dudanarekin bukatutzat emango dut nire hitzaldia, Euskaltzaindiaren gonbita biziki eskertuz.

BIBLIOGRAFIA

- BÄHR, G., (1948). *Baskisch und Iberisch*, [Eusko Jakintza], Baiona [gastelaniazko bertsio bat laster argitaratuko da].
- BELTRÁN LLORIS, F., (1986). “Epigrafía y onomástica de las Cinco Villas”, *Actas de las I Jornadas de estudio sobre las Cinco Villas*, Zaragoza, 53-93.
- (1993). “Un nuevo antropónimo vasconico en la comarca de Las Cinco Villas (Zaragoza)”, *Homenatge a Miquel Tarradell*. Bartzelona.
- BERNHARD, H., H.-J. ENGELS, R. ENGELS & R. PETROVSZKY, (1990). *Der römische Schatfund von Hagenbach*, Mainz [berezikiki R. Engels, “Zur Herkunft der Votivbleche auf Grund der Namen”, 14-19].
- ECHAIDE, A., (1967). “Topónimos en -oz en el País Vasco español”, *PV*, 11-14.
- ERNOUT, A. - MEILLET, A., (1967) (4. arg), *Dictionnaire étymologique de la langue latine*, Paris.
- ESPINOSA, U. & L. M. USERO, (1988). “Eine Hirtenkultur im Umbruch. Untersuchungen zu einer Gruppe von Inschriften aus dem conventus Caesaraugustanus (Hispania Citerior)”, *Chiron* 18, 477-504.
- ESPINOSA, U., (1989). “Una *officina* lapidaria en la comarca de Camero Nuevo (La Rioja)”, *Estudios sobre la antigüedad en homenaje al profesor Santiago Montero Díaz* [Gerión, Anejos II], Madril, 403-415
- GÓMEZ PANTOJA, J. & ALFARO PEÑA, E., (2001). “Indigenismo y Romanización en las tierras altas de Soria”, in: Fco. Villar & P. Fernández Alvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania, VIII Coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*, Salamanca, 169-187.
- GORROCHATAGUI, J., (1984). *Onomástica indígena de Aquitania*, Bilbao.
- (1987). “Situación lingüística de Navarra y alrededores en la antigüedad a partir de las fuentes epigráficas”, *I Congreso General de Historia de Navarra* [Principio de Viana, Anejo 7], Iruñea, 435-445.

- GORROCHATEGUI, J., (1993). “Las lenguas de los pueblos paleohispánicos”, M. Almagro (arg.), *Los celtas*, 409-429.
- (1993) “La onomástica aquitana y su relación con la ibérica”, *Lengua y cultura en la Hispania prerromana. Actas del V Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península ibérica*, Salamanca, 609-634.
- (1995). “Basque Names”, in: E. Eichler, G. Hilty, H. Löffler, H. Steger & L. Zgusta (arg.), *Proper Names Studies. An International Handbook on General and European Onomastic Sciences*. I, Berlin- New York [Handbücher zur Sprach- und Kommunikationswissenschaft], 747-756.
- (1995). [1997], “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia* 12, 181-234.
- (1995). “Basque and its Neighbors in Antiquity”, in: José I. Hualde, Joseba A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* [Current issues in linguistic theory 131] Amsterdam / Philadelphia [John Benjamins], 31-63.
- (1998) “Euskararen historiarareaz zenbait gogoeta - Algunas reflexiones sobre la prehistoria de la lengua vasca”, Lección inaugural. *Acto solemne de Apertura del Curso Académico 1998-1999 Ikasturteari Hasiera Emateko Ekitaldi Nagusia*, Bilbao, 17-38.
- (2000). “La romanización del País Vasco: aspectos lingüísticos”, *Bitarte* 22, 2000, 87-105.
- (2000), “Ptolomey’s Aquitania and the Ebro Valley”, in: David N. Parson & Patrick Sims-Williams (arg.), *Ptolemy: Towards a linguistic Atlas of the earliest Celtic place-names of Europe*, Aberystwyth, 143-157.
- GORROCHATEGUI, J. & J. LAKARRA, (1996). “Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco”, *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*, Salamanca, 101-145
- (2001). “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in: Fco. Villar & P. Fernández Alvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania, VIII Coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*, Salamanca, 407-438.
- HOZ, J. de, (1993). “La lengua y la escritura ibéricas, y la lengua de los íberos”, *Lengua y cultura en la Hispania prerromana. Actas del V Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península ibérica*, Salamanca, 635-666.
- HUALDE, J. I., (1995). “Reconstructing the Ancient Basque Accentual System: Hypotheses and Evidences”, in: J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* [Current issues in linguistic theory 131] Amsterdam / Philadelphia [John Benjamins], 171-188.
- IGARTUA, I., (2001). “La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico”, *ASJU* 35:1, 185-213.
- JIMENO, ROLDÁN, EVA TOBALINA, JAVIER VELAZA, (1998). “Una nueva ara romana procedente de Iscua (Navarra)”, *Epigraphica* 60, 290-294.
- KRAHE, H., (1964). *Unsere ältesten Flußnamen*, Wiesbaden.
- LAKARRA, J., (1995). “Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root”, in: José I. Hualde, J. A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam 1995, 189-206.
- (1996). [1999], “Sobre el Europeo Antiguo y la reconstrucción del protovasco”, *ASJU* 30:1, 1-70.

- LAKARRA, J., (1998). "Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa", *Uztaro* 25, 47-110.
- _____ (1999). "Ná-De-Ná", *Uztaro* 31, 15-84.
- LAUSBERG, H., (1970). *Lingüística románica*, 2 lib. Madril: Gredos.
- LUCHAIRE, A., (1876-7). "Les origines linguistiques de l' Aquitaine", *Bull. Soc. des sciences, Lettres et Arts de Pau*, 349-423.
- MARTÍNEZ SAENZ DE JUBERA, M. & J.M. GONZÁLEZ PERUJO (1998). "Onomástica vasca en La Rioja", *FLV* 79, 475-496.
- MERINO URRUTIA, J. B., (1978). *La lengua vasca en La Rioja y Burgos*, Logroño.
- MITXELENA, K., (1954). "De onomástica aquitana", *Pirineos* 10, 409-458 [Orain LH-an, 409-455]
- _____ (1961). "Los nombres indígenas de la inscripción hispanorromana de Lerga", *PV*, 65-74.
- _____ (1977). *Fonética histórica Vasca*, Donostia.
- _____ (1985). *Lengua e Historia*, Madril: Paraninfo.
- OÑEDERRA, L., (1990). *Euskal fonologia, palatalizazioa: asimilazioa eta hots sinbolismoa*, Bilbao: EHU.
- ORPUSTAN, J.-B., (1999). *La langue basque au moyen âge (IXe.-XVe. siècles)*, Baigorri: Izpegi.
- RIJK, R.P.G. DE, (1992). "Nunc Vasconice", *ASJU* 26:3, 695-724.
- ROHLFS, G., (1952). "Sur une couche prerromaine dans la toponymie de Gascogne et de l' Espagne du Nord", *RFE*, 209-256.
- SACAZE, J., (1892). *Inscriptions antiques des Pyrénées*. Toulouse [faksimila,1990, Toulouse]
- SÉGUY, J., (1951). "Le suffixe toponymique -os en Aquitaine", *Mémoires du troisième Congrès int. de Toponymie*, II, 218-222.
- TOVAR, A., (1961). *The Ancient Languages of Spain and Portugal*, New York.
- _____ (1977). "Les noms ibériques", *L'Onomastique latine. Colloques int. du CNRS*, 564, Paris, 281-290.
- TRASK, R. L., (1985). "On the reconstruction of Pre-Basque Phonology", J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena septuagenario oblatae*, Vitoria-Gasteiz, 885-891.
- _____ (1995). "Origins and Relatives of the Basque Language: Review of the evidence", in: J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* [Current issues in linguistic theory 131] Amsterdam / Philadelphia [John Benjamins], 65-99.
- _____ (1997). *The History of Basque*, London & New York.
- UHLENBECK, C.C., (1947). "Les couches anciennes du vocabulaire basque", *EJ* 1, 543-581.
- UNTERMANN, J., (1963). "Estudio sobre las áreas lingüísticas prerromanas de la península Ibérica", *APL*, 165-192.
- VELAZA, J., (1995). "Epigrafía y dominios lingüísticos en territorio de los Vascones", in: F. Beltrán (arg.), *Roma y el nacimiento de la cultura epigráfica en Occidente*, Zaragoza, 209-218.
- _____ (1996). "Chronica epigraphica iberica: hallazgos de inscripciones ibéricas en Levante, Cataluña, Aragón y Navarra (1989-1994)", *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*, 311-337.

- VELAZA, J., (1999). "Novedades de epigrafía romana de Navarra", *Sylloge epigraphica barcinonensis* 3, Bartzelona, 155-168.
- VENNEMANN, T., (1994). "Linguistic reconstruction in the context of European Prehistory", *TPhS* 92:2, 215-284.
- (1998) "Etymology and phonotactics: Latin *grandis* vs. Basque *handi* 'big' and similar problems", *JIES* 26:3-4, 345-390.